

Laborategiko kronikak Crónicas del Laboratorio

Leioan, 2023ko urriaren 19an

Gaurko egunean Ekin-eko “Tamizado” saioa buruta da Ondizeko Dorrean, biztanleek egin duten proposamenak aztertzeko eta hausnartzeko ekintza bakoitzean aukerak edota amankomunean jartzeko proiektuak ahal izanez gero.

Egon zen Rubikeko Kubo batekin lehiatzeko proposamen bat, gazte helduak harremantzeko taldea sortzea edota euskaraz mintzatzeko talde bat, besteak beste egindako proposamen artean.

Partaideek euren proposamena azaltzen zuten minutu bateko edo gutxiagoko iraupena izanda geroago eskegitzeko Herriguneko webgunean. Saioaren amaieran Julen Capetillo parte-hartze zinegotzia hurbildu zen.

Arkaitz



Laborategiko kronikak Crónicas del Laboratorio

Leioan, 2023ko urriaren 26an

Honako honetan ohiko jardunaldia burutu da, hori bai, landare, jostun eta gainontzeko taldeez gain, mugikorra zelan erabili era elektrizitate tailera burutu dira ezohiko ekintzen artean.

Haporen inguruko taldean (Leioan zelan bizi) Lamiakoko darsenan Udalak egin nahi dituen eraikinak, lanak eta proiektoen inguruko eztabaida burutu dute nahiko ezkor, eta proiektatuta dauden lanen aurka agertu dira gehien bat.

Mugikorraren erabilera joratu zen taldean aplikazioak jeisten erakutsi zen gehien bat "Google Play" gehien bat erabiltzera eta bertan nahi den aplikazioa jesiten, zeintzuk baimenak eman behar diren, zeintzuk ez diren komeni, mugikorrak non gordetzen dituen eta dagoeneko zeukaten aplikazioak desinstalatzeko irakatsi zen. Bizkaibus eta Osakidetza aplikazioen lan edo frogatu genuen.

Elektrizitate arloan erakutsi zen entxufe bat martxan jartzen, kolore bakoitzari zeri dagokion: urdina, negatiboa; marroia, positiboa eta hori-berdea "tierra" datza.

Arkaitz



Laborategiko kronikak Crónicas del Laboratorio

Leioan, 2023ko azaroaren 2an

Gaurkoan Udal Laborategian konpontzaile taldea, jostunak, “Leioan zelan bizi” taldea eta Landareen taldea bildu dira.

“Leioan zelan bizi” Taldean 2024ko otsailaren 24an egingo den ibilaldia jorratu dute.

Konpontzaile tailerrean, entxufe bat zelan egiten den jarraitu dute ikasten.

Eta Landare Taldean xaboa egin zuten aurreko xaboi bat egin zutena eta ez zitzaiena ondo atera zuzenduz.

Arkaitz



Laborategiko kronikak Crónicas del Laboratorio

Leioan, 2023ko azaroaren 9an

Gaur Udal Laborategian, “Leioan zelan bizi”, jostunak, konpontzaile, astronomia eta landare taldeak bildu dira besteak beste.

Saioaren hasieran Edith-ek gimnasia praktika bat egin du, otsailean Irakale bat egiteko asmoarekin.

Patchwork egiteko talde bat sortu da, hauek ere Irakale bat egingo dute otsailean.

Leioan zelan bizi taldean Sarriena eta San Bartolomé auzoekin bilduko dira otsailaren 24an egongo den ibilbideari buruz eta udaberrian egingo den LiburuLabari buruz, liburutegiko zuzendariarekin biltzeko asmotan dira ere bai.

Astronomia taldean datorren urte hasierako irakaleari buruz aritu dira.

Landare taldean egindako xaboiari begirada bat bota diete.

Konpontzaile taldean jarraitu da erakusten entxufe bat zelan egin daraman konexioarekin.

Arkaitz

